

**ENPRESA ETA NEGOZIO-EREDUEN
DISEINUA**

**EMPRESA Y DISEÑO DE MODELOS DE
NEGOCIO**

1)

a)

AKTIBOA		PASIBOA ETA ONDARE GARBIA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA	808.600	ONDARE GARBIA	629.600
Ibilgetu Materiala	808.600	Kapital Soziala	399.600
Lurrak eta ondasun naturalak	50.000	Erreserba legalak	230.000
Eraikuntzak	297.300		
Makineria	660.000	PASIBO EZ-KORRONTEA	84.000
Garraio Elementuak	84.000	Kreditu erakundeekiko e/lu. Zorrak	84.000
I.P.E.	2.700		
Altzariak	6.000		
Ibil.Mat.Amort.Metatua	-291.400		
AKTIBO KORRONTEA	68.000	PASIBO KORRONTEA	163.000
Izakinak	16.000	Epe laburreko zorrak	6.000
Lehengaiak	16.000	Kreditu erakundeekiko e/lab. Zorrak	6.000
		Hartzekodun komer. eta ord. best. kont.	157.000
Zordun kom. eta kob. best. kontuak	26.000	Hornitzaileak	74.000
Bezeroak	3.120		
Bezeroak kobr.merk. efektoak	22.880	O.P. BEZagatik Hartzekodun	70.000
Eskudirua eta b. akt. Lik. Baliokideak	26.000	Gizarte Segurantzza hartzekoduna	2.000
Bankuak eta kred erak, ageriko k/k, euroak	23.400	Hartzekodunak OME	11.000
Kutxa, euroak	2.600		
AKTIBOA GUZTIRA	876.600	ONDARE GAR. ETA PASIBOA	876.600

Kapital Soziala: $876.600 - 163.000 - 84.000 - 230.000 = 399.600 \text{ €}$

b)

Ratioak eta enpresaren azterketa	Erreferentziazko balioak
1. Ibilgetua $\frac{A \text{ Ez } K}{Ondarea + P \text{ Ez } K} = \frac{808.600}{713.600} = 1,13$	(< 1)
2. Zorpetze osoa $\frac{P \text{ Ez } K + PK}{Ondarea} = \frac{247.000}{629.600} = 0,39$	(0,5 – 1,2)
3. Likidezia $\frac{A K}{P K} = \frac{68.000}{163.000} = 0,42$	(> 1)
4. Diruzaintza $\frac{AK - Izakinak}{PK} = \frac{52.000}{163.000} = 0,32$	(> 1)
5. Bermea $\frac{A}{P \text{ Ez } K + P K} = \frac{876.600}{247.000} = 3,55$	(> 1)

Ibilgetua. Ratioa 1 baino handiagoa denez (1,13), maniobra-fondoa negatiboa du. Ondare garbia eta pasibo ez-korrontea ez dira gai aktibo ez-korrontea finantziatzeko, eta, horretarako, pasibo korrontearen zati bat behar du enpresak. Finantza-desoreka du enpresak.

Zorpetzea. Ratioak 0,39 eman digu, eta erreferentziazko balioen azpitik dago. Enpresak orekatuak ditu zorrak eta ondare garbia. Ondare garbian duen euro bakoitzeko 0,39 euro zor ditu. Une honetan ez dago baldintzatuta inbertsio-erabakiak hartzerakoan.

Likidezia. Ratioek adierazten dute enpresa ez dagoela ondo arlo honetan ere. Epe laburreko zorrak ordaintzeko arazoak izango ditu. Epe laburrera zor duen euro bakoitzeko 0,42 euro ditu aktibo korrontean.

Diruzaintza. Ratioaren balioa erreferentzia-balioaren azpitik dago, eta, beraz, enpresa egoera arriskutsuan dago, eta, oso epe laburrean, ordainketak eteteko arriskuan egongo da. Enpresak salgaiak saldu gabe kobratzeko dituen fakturak eta eskudirutan duen baliabideekin, ez du izango zorrak ordaintzeko nahikoa diru epe oso motzean.

Bermea: 3,55. Berme-ratioak adierazten du enpresak ez duela arazorik izango bere zor guztiei aurre egiteko, berme ona baitu. Enpresak 3,55 euro ditu aktibo zorretan dagoen euro bakoitzeko.

2A)


a)

$$K_{au} = \frac{K_a}{\text{unitateak}} = \frac{245.250 \text{ €}}{54.500} = 4,5 \text{ kostu aldakorra unitateko}$$

Itopuntua :

$$q = \frac{K_F}{\text{prezioa} - K_{au}} = \frac{58.014 \text{ €}}{7,8 - 4,5} = 17.580 \text{ osagai}$$

17.580 osagai baino gehiago saldu beharko lituzke mozkinak izaten hasteko.



b)

Aurtengo emaitza ekonomikoa

$$\text{Mozkinak} = ST - KT = P \times Q - K_F - K_{au} \times Q = 7,8 \times 54.500 - 58.014 - (4,5 \times 54.500) = 121.836 \text{ €}$$

c)

$$q = \frac{KF}{\text{prezioa} - KA_u} \qquad 14.000 \text{ unit} = \frac{58.014}{p - 4,5} \qquad P = 8,64 \text{ €}$$

14.000 unitateko ekoizpen-ahalmena duenez, enpresa horren prezio-muga 8,64 € izango litzateke.

2B)

a)

Batez besteko hornidura-aldia

$$HA_h = 365 / n_h$$

n_h = Lehengaien urteko kontsumoa / Lehengaien urteko batez besteko izakinak
= 20.000 / 1.800 = 11,11 aldiz

$HA_h = 365 / 11,11 = 32,85$ egun. Lehengaiak 32,85 egun irauten du biltegian ekoizpen-prozesura pasatu arte.

Batez besteko ekoizpen-aldia

$$HA_e = 365 / n_e$$

n_e = Ekoizpen-prozesuan dauden produktuen urteko kostua / Ekoizpen-prozesuan dauden produktuen batez besteko izakinak = 40.000 / 4.000 = 10 aldiz.

$HA_e = 365 / 10 = 36,5$ egun. Ekoizpena hasita, enpresak 36,5 egun irauten du produktua ekoitzi arte.

Batez besteko salmenta-aldia

$$HA_s = 365 / n_s$$

n_s = Salmenten urteko bolumena (kostuetan baloratuta) / Produktu bukatuen batez besteko stocka = 45.000 / 3.750 = 12 aldiz

$HA_s = 365 / 12 = 30,42$ egun. Produktuak fabrikaturik, 30,42 egun irauten dute biltegian saldu arte.

Batez besteko kobrantza-aldia

$$HA_k = 365 / n_k$$

n_k = Salmenten urteko bolumena (salmenta-prezioan baloratuta) / Merkataritza-kredituen batezbestekoa (kobratzeko duguna) = 75.000 / 1.500 = 50 aldiz

$HA_k = 365 / 50 = 7,3$ egun. Enpresak 7,3 egun barru kobratzen ditu bezeroen fakturak eta letrak.

BATEZ BESTEKO HELTZE-ARO EKONOMIKOA = $HA_h + HA_e + HA_s + HA_k$

BHAE: $32,85 + 36,5 + 30,42 + 7,3 = 107,07$ egun igarotzen dira lehengaiak biltegian sartzen direnetik bezeroen fakturak eta letrak kobratu arte.

BATEZ BESTEKO HELTZE-ARO FINANTZARIOA = $HA_h + HA_e + HA_s + HA_k - HA_o$

Batez besteko ordainketa-aldia

$$HA_o = 365 / n_o$$

n_o = Lehengaien urteko erosketak, kreditura / Hornitzaileekiko batez besteko zorraren saldoa = $20.000 / 2.500 = 8$ aldiz

$$HA_o = 365 / 8 = 45,63 \text{ egun}$$

BHAF: $107,07 - 45,63 = 61,44$ egun igarotzen dira hornitzaileei lehengaiak erosteagatik ordaintzen zaienetik bezeroei saldutako produktuak kobratu arte.

3A)

a)

Irizpidea: FIFO		SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
data	deskribapena	kopurua	prezioa	balioa	kopurua	prezioa	balioa	kopurua	prezioa	balioa
05/01	Hasierako izakinak							500	12	6.000
05/05	Erosketa Ari	350	11,5	4.025				500	12	10.025
								350	11,5	
05/07	Salmenta Bri				400	12	4.800	100	12	5.225
								350	11,5	
05/13	Erosketa Ari	600	10,25	6.150				100	12	11.375
								350	11,5	
								600	10,25	
05/17	Salmenta Bri				100	12	5.737,5	550	10,25	5.637,5
					350	11,5				
					50	10,25				
05/24	Erosketa Dri	600	13	7.800				550	10,25	13.437,5
								600	13	
05/28	Salmenta Bri				400	10,25	4100	150	10,25	9.337,5
								600	13	

Amaierako izakinak: 750 unitate

Izakinen balioa: 9.337,5 €

Irizpidea: BPH		SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
data	deskribapena	kopurua	prezioa	balioa	kopurua	prezioa	balioa	kopurua	prezioa	balioa

05/01	Hasierako izakinak							500	12	6.000
05/05	Erosketa Ari	350	11,5	4.025				850	11,79	10.021,5
05/07	Salmenta Bri				400	11,79	4.716	450	11,79	5.305,5
05/13	Erosketa Ari	600	10,25	6.150				1.050	10,91	11.455,5
05/17	Salmenta Bri				500	10,91	5.455	550	10,91	6.000,5
05/24	Erosketa Dri	600	13	7.800				1.150	12	13.800
05/28	Salmenta Bri				400	12	4.800	750	12	9.000

Amaierako izakinak: 750 unitate
 Izakinen balioa: 9.000 €

3B)

- Enpresa multinazionalak herrialde batean baino gehiagotan dihardutenak dira.
- ETE-ek siglek enpresa txikia eta ertaina adierazten dute.
- Enpresa multinazionalak tamaina handikoak izan ohi dira, eta abantailak izan ditzakete hornitzaileekin negoziatzeko orduan. Eskala-ekonomiak ere aprobetxa ditzakete tamaina handikoak direlako, eta, horri esker, produktuak gehiago dibertsifikatu ditzakete. Desabantaila gisa, enpresa horiek kanbio-tasaren eta arrisku politikoen arrisku handiagoa dute nazioarteko merkataritzan.
- Enpresa txiki eta ertainen desabantaila da eskala-ekonomia handiez baliatu ezin izatea, txikiak direlako. Gainera, hedatzeko oztopo handiagoak izan ditzakete. Abantailen artean daude merkatuaren beharretara egokitzeko malgutasun handiagoa eta azken bezeroarekiko hurbiltasun handiagoa.

4A)


a) Eskaera-puntua = segurtasun-stocka + hornikuntza-epeko kontsumoa =
 =100 +(10 x 300/30) = 200 unit

b) Batez besteko stocka = $\frac{\text{segurtasun-stocka} + \text{gehieneko stocka}}{2} = (100 + 700) / 2 =$
 = 800 / 2 = 400 unit

Gehieneko stocka =segurtasun-stocka + eskaera= 100 + (2 x 300) =100 + 600=
 700 unit

c) Errotazio-indizea= $\frac{\text{urteko kontsumoa}}{\text{batezbesteko stocka}} = (12 \times 300) / 400 = 3.600 / 400 = 9$ aldiz

d)



e) $3 \times (300/30) = 30$ unit beharko lituzke. Segurtasun-stockean 100 m ditu; beraz, ez luke stock-haustura izango, eta jardunarekin jarraituko luke.

f) $10 \times (300/30) = 100$ unit. Segurtasun-stockean 100 unit ditu; beraz, biltegia ez litzateke hutsik geratuko. Momentu horretan eskari berria helduko litzateke eta ez luke ondorio txarrik izango.

4B)

a)

a) Garraio-enpresa horren negozio-eredua, testuan azaltzen den bezala, jasangarria da, eta energia-eraginkortasunean eta digitalizazioan oinarrituta dago, bai eta lan-harreman egonkorretan ere. Portuaren ondoan egotea kokapen estrategikoa da, eta nazioartean hedatzea ahalbidetu dio, eta hori gakoa da automozioaren sektorean duen garrantzia izateko.

b)

Urteko fakturazioa: enpresa baten salmenten bolumena da, eurotan balioetsita. Kasu honetan, 40 milioi euro.

Lan-prekarietatea: Enplegu-egonkortasunik eza; horren ondorioz, langileek ez dute inplikaziorik enpresaren epe luzeko proiektuan.

Digitalizazioa: Informazioa formatu fisiko batetik ingurune digital batera igarotzea da. Orokorkiago, terminoak enpresen eraldaketa digitala adierazten du, hau da, gaitasun digitalak prozesuei, produktuei eta aktiboei aplikatzea eraginkortasuna hobetzeko, bezeroarentzako balioa hobetzeko, arriskua kudeatzeko eta diru-sarrerak sortzeko aukera berriak aurkitzeko.

BILTEGI-FITXA

IRIZPIDEA:

ARTIKULUA:

DATA	DESKRIPZIOA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa

IZAKINEN BALIOA:
UNITATE KOPURUA: